

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako kontzejuetako argiteria publikoaren gastuan defizita finantzatzeko ezohiko dirulaguntza deitzen duen Udalaren Osoko Bilkuraren 2023ko irailaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 718281

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/718281>).

Lehenengoa. Entitate onuradunak

Zuiako udalerrian legez eratuta dauden toki-erakunde edo administrazio-batzar guztiek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza horiek.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da udalerriko toki-erakundeek 2022ko ekitaldian izan zuten defizit ekonomikoa finantzatzea. Horretarako, dirulaguntzak emango dira, aurrekontu-mugen barruan, argiteria publikoaren prezioak igotzen laguntzeko.

Deialdi honetan xedatutako ondorioetarako, argiteria publikoko defizit ekonomikotzat hartzen da emandako dirulaguntza osoaren eta prezioen gehikuntzagatik hainbanaketa egin ondoren ordaindutako dirulaguntzaren arteko aldea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko irailaren 14an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 43.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (izapideak/dirulaguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2023ko irailaren 26a

Alkate-lehendakaria

UNAI GUTIERREZ URQUIZA